



JARRAIBIDEAK, HEZKUNTZA SAILAREN MENDEKO IKASTETXE PUBLIKOETAN KORONABIRUS SARS-COV-2REN ERAGINPEAN EGOTEKO ARRISKUA DAGOENEAN, GARBIKETA- ETA DESINFEKZIO-LANAK EGITEKO

1. SARRERA

SARS-CoV2 birusak eragindako infekzioa batez ere 5 mikra baino gehiagoko arnasketa-tanta handiek edo 5 mikra edo gutxiagoko arnasketa-tanta txikiak -mikrotantek- eragiten dute kutsatutako pertsonen jariatzearekin kontaktu estua izatean, pertsonatik pertsonara, metro bateko edo biko distantziara, edo denbora aldakorrean airean esekita egoten diren mikrotantengatik, 2 metrotik gorako distantzian eta, bereziki, aireztapen gutxiko leku itxietan.

Kontaktua material kutsatuaren bidez ere gerta daiteke. Material hori eskuetan edo aldeztatik kutsatutako edozein objektu edo gainazalarekin egon daiteke.

Ondorioz, kutsatzeko arriskua murrizteko, oso garrantzitsua da edozein espaziotako higie, garbiketa eta aireztapen-neurriak zorrozteak.

2. APLIKAZIO-EREMUA

Jarraibide hauek EAEko ikastetxe publikoetako Hezkuntza Saileko mendeko zuzendaritza-taldeari eta **garbitzaileei zuzenduta** daude.

3. HELBURUA

Aplikazio-eremuan adierazitako ikastetxeetan aplikatu beharreko garbiketa, desinfekzio eta aireztapen-jarraibideak ezartzea.

4. GARBIKETA-PLANA

Garbiketa-planak funtsezko hiru alderdi hartu behar ditu kontuan: aireztapena, garbiketa eta desinfekzioa.

- ✓ **Aireztapenak** barruko airearen kalitatea ona izaten ahalbidetzen du.
- ✓ **Garbiketak** gainazalen zikinkeria ezabatzen du, baita germenak kendu ere egin. Horretarako, bitarteko mekanikoak eta kimikoak (detergenteak) erabiltzen dira.
- ✓ **Desinfekzioak** gainazalarekin germenak desagertzea edo desaktibatzea ahalbidetzen du. Horretarako, desinfektatzaileak eta produktu kimikoak erabiltzen dira, hala nola baimendutako biruzidak.

Puntu honetan garrantzitsua iruditzen zaigu gogoratzea desinfekzioa egin aurretik garbiketa egin behar dela, zikinkeriak desinfektatzaileen eraginkortasuna murrizten baitu.

5. GARBIKETA JARRAIBIDEAK

Lokalak behar bezala aireztatu behar dira, gutxienez hamar minutuz. Garbitzeko eta desinfektatzeko produktuak aplikatu bitartean eta ondoren ere aireztatu behar da.

Ikastetxeak garbitzeko, ikastetxean ezarritako ohiko prozedurak aplikatuko dira, baina puntu kritikoan garbiketa eta desinfekzioa areagotu beharko da: gunek komunak (komunak, igogailua, korridoreak), ukipen-azalera ohikoak (mahaiak, aulkiak, barandak, laneko gainazalak) eta erabilera komuneko objektuak edo ekipoak (telefonoak, teklatuak, inprimagailuak, etab.).

Langileen edo ikasleen eskuekin kontaktuan dauden gainazalen (ateen heldulekuak, sakagailuak, etengailuak, teklatuak, barandak, pertxak, etab.) garbiketa eta desinfekzioa indartu egin beharko dira, erabilera-intentsitatearen arabera.

Garbiketako langileek modu isolatuan lan egingo dute, eremuak eta zereginak banatuz. Ez da materialik partekatuko. Langile bakoitzak berea erabiliko du.



Garbiketa-lanak errazte aldera, saio edo lanaldi bakoitzaren ondoren, langileek eta ikasleek garbi utzi beharko dituzte laneko mahaia eta gainazalak, eta paperezko dokumentuak, idazmahaiako materiala, apaingarriak eta abar kendu beharko dituzte.

Era berean, partekatutako lanpostuetan edo ekipoak partekatzean, erabiltzaile bakoitzak ukipen-gainazalak, heldulekuak etab. edo teklatura, sagua desinfektatuko ditu gel desinfektatzailea edo horren antzekoarekin. Horretarako, disoluzio hidroalkoholiko desinfektatzaileak eduki beharko dira, eta lanpostu edo lan-ekipo horietan banatu, erabilera orokorrerako.

6. PRODUKTU DESINFECTATZAILE GOMENDATUAK

Ohiko detergenteekin garbitzea nahikoa da, baina **desinfekziorako lixiba, alkohola edo ur oxigenatua erabil daitezke**; izan ere, agerikoa da koronabirusak inaktibatzen egiten direla honako hauekin kontaktua badute: hipoklorito sodikoa, lixiba, % 0,1eko kontzentrazioarekin, etanola, alkohola, % 62-71koa edo hidrogeno peroxidoa, ur oxigenatua, % 0,5ekoa.

Hipoklorito sodikoaren kontzentrazio gomendatu horiek lortzeko, edozein lixiba komertzialetatik, 25-30 ml lixiba hartu eta litro bat ur hotz bakoitzari gehitu (koilarakada bat 15ml). Garrantzitsua da prestatzen denetik erabiltzen den arte ahalik eta denbora gutxien igarotzea. Diluzio prestatu berria erabili beti. Gutxienez bost minutuz jarduten utzi eta urarekin argitu.

Ekipo ofimatikoen gainazalean (ordenagailuak, teklatuak, sagua, etab.) edo lixiba erabili ezin den beste gainazal batzuetan % 70eko alkohola erabili ahal izango da. % 70eko kontzentrazio hori lortzeko, alkohol arrunta erabil daiteke (% 96ko kontzentrazioa), honela diluituta: 30 ml ur gehitu % 96ko 70 ml alkoholari eta astindu. Aplikatu ondoren, ez dago urarekin argitu beharrik. [Behar bezala aplikatzeko arretaz irakurri dekalogo hau, eta bertan ezarritako jarraibideak bete.](#)

Disoluzio prestatu horiek dituzten ontziek etiketatuta egon beharko dira.

Osasun Ministerioak baimendutako produktu biruziden zerrendan ageri diren desinfektatzaileetako edozein ere erabil daiteke:

[Listado de virucidas autorizados en España para uso ambiental \(PT2\), industria alimentaria \(PT4\) e higiene humana \(PT1\) 06.08.2020](#)

Produktu guztiak Fitxa Teknikoetan eta produktuen Segurtasun-Datuen Fitxetan adierazitako jarraibideen arabera manipulatu eta aplikatuko dira.

Produktuak ez dira **INOIZ NAHASTU** behar.

7. NORBERA BABESTEKO EKIPAMENDUAK

a. OHIKO GARBIKETA ETA DESINFEKZIOA

Langileek maskara kirurgiko edo higienikoa erabili beharko dute kutsatutako gainazaletik eskura eta eskutik mukosetara egon daitekeen kontaktua saihesteko, kutsatzeko bide gisa. Era berean, maskara erabiliz gero, garbitzaileek ez dituzte haiek desinfektatutako gainazalak kutsatuko.

Gainera, garbiketa-lanetarako, norbera babesteko ohiko ekipamenduak, eskularruak, erabili beharko dira.

Erabilera bakarreko eskularruak izan daitezke, binilozkoak edo nitrilozkoak, eta latexezko eskularruak erabiliz gero, gomendatzen da kotoizko eskularru baten gainean erabiltzea, edo eskularru lodiagoak izan daitezke, hausturarekiko erresistenteak.

Eskuen higiena da infekzioa prebenitzeko eta kontrolatzeko neurri nagusia. Garbiketa-lanak egin aurretik eta ondoren, eta eskularruak kendu ondoren, eskuak garbitu beharko dira.



b. KASU SINTOMATIKO BATEN ESPARRUAREN GARBIKETA ETA DESINFEKZIOA/ ISOSLAMENDU GELA

Garbitu eta desinfektatuko den esparuan kutsatzeko aukera badago, esparru horretan pertsona sintomatiko bat egon delako, garbiketako langileek FFP2 maskara erabili beharko dute.

Garbitu aurretik, ahalik eta gehien aireztatu beharko da sintomak dituen pertsonak erabilitako edo maiz egondako espazioa.

Eragindako ikaslearen/pertsonaren gunea/gela/lanpostua garbitu behar duen pertsonak honako informazio hau jasoko du ikastetxeko zuzendaritzaren aldetik:

- Eragindako ikasgelak edo eragindako pertsonaren lanpostuak
- Maiz erabiltzen diren eremu komunak
- Eragindako pertsonak ukitu ahal izan dituen elementuak

Gune horiek xehetasunez eta arretaz garbitu behar dira.

Hona hemen, desinfekzioa egiteko jarraibideak:

- Lokalak hustu ondoren, esparruak aireztatu, gutxienez bi orduz, garbitu eta desinfektatu aurretik.
- Laneko gainazalak desinfektatzea errazteko, kartoizko kutxa batean gorde bertan dauden paperezko material guztiak.
- Gainazalak, taulak, ertzak, heldulekuak, tiraderak, etab. desinfektatzeko, zapi hezetua erabiliko da, ondo xukatuta, desinfektatzaile-disoluzio batean, adibidez, lixiban.
- Desinfektatu aulkia eta aulkiaren beso-euskarriak desinfektatzaile egoki batekin.
- Desinfektatu paperezkoak ez diren objektuak: boligrafoak, giltzak, grapagailuak, karpetak, potoak, etab.
- Ekipo informatikoak desinfektatzea: CPU, teklatua, sagua... adibidez, alkoholarekin bustitako erabili eta botatzeko baietarekin.
- Armairuko ateak, leihoak, heldulekuak eta abar desinfektatzea, soluzio desinfektatzaile batek (lixibak esaterako) bustitako zapi batekin.
- Kaltetutako pertsonak ukitu ahal izan dituen eremu komunitako objektu guztiak desinfektatzea: etengailuak, eskudelak, heldulekuak, inprimagailuak, mahaiak, eskanerrak, etab.
- Eragindako pertsonak erabilitako higiene-zerbitzuak garbitzea eta desinfektatzea.
- Ekipo elektrikoak deskonektatu ondoren garbituko dira, eta lixibarekin bustitako eta oso ondo xukatutako baieta batekin (tantarik ez duena) edo alkoholez bustitako baieta batekin egingo da.

Garbitu eta desinfektatu ondoren, bota material guztia: ipitzak, baietak, etab. eta laneko arropa gutxienez 60º gradutan garbituko da.

8. HONDAKINEN KUDEAKETA

a. OHIKO HONDAKINEN KUDEAKETA

Ohiko hondakinen kudeaketa ohiko moduan egiten jarraituko da, hondakinak bereizteko protokoloak errespetatuz.

Higiene pertsonaleko hondakinak kudeatzeko, bereziki erabili eta botatzeko zapiak, maskarak edo arnas etiketa betetzeko erabilitako materialak, lokal guztiek eduki beharko dituzte paperontziak edo edukiontziak, langileek edo ikasleek hondakin horiek bota ahal izateko.



Paperontzi edo edukiontzi horiek tapa, pedal bidezko irekiera-mekanismoa eta barne-poltsa izango dituzte. Inola ere ez dira hondakin horiek lekualdatuko, eta, poltsa behar bezala itxi ondoren, gainontzeko hondakin gisa kudeatuko dira.

B. KASU SINTOMATIKOKO HIGIENE PERTSONALEKO HONDAKINEN KUDEAKETA

Kasu sintomatiko baten higiene pertsonaleko hondakinetatik datozen hondakinak (1. poltsa), baita laguntzaileak erabilitako maskara eta eskularruak dituen poltsa ere, behar bezala itxi, eta bigarren zabor-poltsa batean (2. poltsa) sartu eta behar bezala itxiko dira. 2. poltsa hori, aurreko hondakinekin, gainerako hondakinekin batera, gainontzeko hondakinei dagokien zabor-poltsan/ontzian utziko da.

Gainera, espazio horiek garbitu eta desinfektatzean sortutako hondakinak, baita garbitzaileek erabilitako eskularruak eta maskara ere, modu berean kudeatuko dira.

Berehala, eskuen higiene osoa egingo da, urarekin eta xaboiarekin, gutxienez 40-60 segundoz.

9. ALDAGELAK

Aldageletan, pertsonen arteko distantzia 1,5 metrokoa izatea ahalbidetuko duen gehieneko edukiera ezarri beharko da. Beharrezkoa izanez gero, aldageletarako sarrera mailakatua izan daiteke. Aldagela jasota utziko da. Aldagela erabiltzen duen azken pertsonak garbiketa osoa egingo du, hurrengo egunerako prest gera dadin. Zeregin horretarako txandak ezarriko dira aldagelaren erabiltzaileen artean.

Garbitu garbigailuan, 60°C-tan, ahal bada, erabilitako baietak eta mopak.

Garbitu eskuak urarekin eta xaboiarekin lanaldia amaitzean.